

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIAHERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Plazak libre daude Nafarroako Gobernuak antolatutako helduentzako euskara-ikastaroetan

Maila guztiak eskaintzen dira eta aurrez aurreko edo sareko autoikaskuntzako modalitateetan

Miércoles, 26 de agosto de 2015

Nafarroako Gobernuak Iruñean (Euskarabidea) eta Huarten (Zubiarte Euskaltegi Publikoa) antolatutako [helduentzako euskara-ikastaroetan matrikulatzeko epea](#) iragarri du.

Plazak libre geratzen diren ikastaro horiek irailetik ekaina bitarte ematen dira, aurrez aurreko eta sareko autoikaskuntzako modalitateetan, eta maila guztietan (A1 – A2 – B1 – B2 – C1 eta EGA).

Eskaera-epea

Matrikulak –haien prezioa hautatutako modalitatearen arabera dago eta 86,70 eta 140,30 euro artean dago–, irailaren 8ra arte egin ahalko dira. Hautatutako zentroaren araberrako xehetasunak honako hauek dira:

[Euskarabidea](#) (Iruñea):

Matrikula-epea irailaren 4ra arte

Jendearentzako arreta-ordutegia: 08:30etik 14:30 arte

José María Iribarren eraikina

Yanguas y Miranda kalea, 27, 1.

31003 Iruña

Posta elektronikoa: euskarabidea@euskarabidea.es

Telefonoa: 848 42 60 53 / 848 42 60 53

[Zubiarte Euskaltegi Publikoa](#) (Huarte):

Matrikula-epea: irailaren 1etik 8ra.

Jendearentzako arreta-ordutegia: 09:00etatik 13:00era eta 16:00etatik 19:00etara

Zubiarte kalea, 13

31620 Huarte (Nafarroa)

Posta elektronikoa: eusubia@educacion.navarra.es

Telefonoa: 948 36 10 91